

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

294

3004/2024 EBAZPENA, abenduaren 26koa, Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez M^a Teresa Díaz Blanco andrea Ginekologia-In vitro ernalketa eta enbrioi-transferentzia Erizaintza Unitateko gainbegirale izendatu baita, izendapen askez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako Erakunde Sanitario Integratuan.

2323/2024 irailaren 2ko Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIan Ginekologia-In vitro ernalketa eta enbrioi-transferentzia Erizaintza Unitateko Gainbegirale lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdia onartu zen.

Balorzio Batzordeak aurkeztutako eskabidea baloratu du, eta dagokion izendapen proposamena egin du. Horiek horrela, eta M^a Teresa Díaz Blanco andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, zera erabaki da: hura izendatzea Ginekologia-In vitro ernalketa eta enbrioi-transferentzia Erizaintza Unitateko gainbegirale, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIan.

Beraz, bat etorri Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikuluko hirugarren arau komunarekin, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– M^a Teresa Díaz Blanco andrea izendatzea Ginekologia-In vitro ernalketa eta enbrioi-transferentzia Erizaintza Unitateko gainbegirale, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIan.

Bigarrena.– Izendapen honek ondorioak izango ditu 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera.

Hirugarrena.– Izendapena egin duen organoak diskrezionalki kargugabetu dezake izendapen askeko sistemaren bidez dagokion lanpostuan izendatu duen langilea. Kargutik kentzeak edo lanpostutik mugiarazteak zera eragingo du: langilea beste lanpostu funtzional batera lekualdatuko da, baina, edonola ere, interesdunak titular moduan kategoriari dagozkion baldintzei eutsiko die. Hain zuzen, antzeko ezaugarriak dituen lanpostu bati atxikiko zaio eta, ahal dela, izendapena jaso aurretik betetzen zuen lanpostuak zeuzkan ezaugarri berberekin antolakuntzari eta lurraldetasunari dagokionez. Atxikipen horrek, hain zuzen, kargugabetze-dataren hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak, eta Osakidetzak berak ezarritako prozedurari jarraituz gauzatuko da. Lanpostua betetzeko eskatzen diren betekizun eta baldintza guztiak bete beharko ditu.

Laugarrena.– Interesdunei eta Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIko Langileen Zuzendari-tzari Ebazpen honen berri ematea.

2025eko urtarrilaren 20a, astelehena

Bosgarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpen hau EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Barakaldo, 2024ko abenduaren 26a.

Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIko zuzendari-gerentea,
MARÍA LUZ MARQUÉS GONZÁLEZ.